

IKASKETA AMAIERAKO DEIALDIARI BURUZKO ARAUAK

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2016ko abenduaren 15eko erabakiaren bidez onartu zen Graduako Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia. Arautegi horretako 10. artikulua ikasketa amaierako deialdia arautzen du.

Adierazitakoa kontuan hartuta, Arte Ederren Fakultateak 2017ko apirilaren 27ko Ikastegiko Batzarren onartu zituen IKASKETA AMAIERAKO DEIALDIARI BURUZKO ARAUAK. Honako hauek dira:

1. Lehenengo matrikulakoak ez diren irakasgaietan baino ezingo da ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin. Salbuespen bakarra izango da Gradu Amaierako Lana.
2. Ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin ahal izango dute ikasketak amaitzeko gehienez ere 30 kreditu falta dutenek, ondorio hauetarako kontuan izan gabe Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak.
3. Azterketak matrikularen arabera irakasgai, talde eta deialdiaren arduradunek irakasleek egingo dizkiete eskatzaileei.
4. Ikasketa amaierako azterketak ebaluatzeko erabiliko den sistema azken ebaluazioa izango da.
5. Ikasle bakoitzak ikasketa amaierako deialdi bat baino ezingo du eskatu.

Deialdi hori eskatzeko epea azaroko azken astea izango da.

Azterketen deialdia urtarrilekoa izango da, 5. eta 6. deialdietako eta egoera bereziko azterketak egingo diren egunetan.

Ikasleak deialdia urtarrilera aurreratu eta irakasgaia gainditzen ez badu, hurrengo deialdia uztaileko ezohikoa izango da, ez bada maiatzeko deialdira aurreratzea eskatu duela. Kasu bietan izango da 5. eta 6. deialdietako eta egoera bereziko azterketak egingo diren egunetan.